

rrekin zebiltzanean bai ezkonberrian, gauzak ezin hobeto zihoen bien artean. Egia da, ordea, Ramatulayeren familiak ez zuela bere eta Modouren arteko harremana begi onez ikusten, gaztegia eta esperientzia gabea zelako. Arrazoiaren ematen die orain senidei, eta bere buruari galdetzen dio zergatik, daukan heziketa izanda, ez zuen erabaki zentzudunagorik hartu eta, esaterako, Dauda Dieng aukeratu, adinez nagusia goa zena eta ekonomikoki egoera egonkorragoan zegoena.

Ohiturei eustea

Lagunak ez bezala, senarraren bizitzan bezala heriotzan ere, ohiturrekin ez haustea erabakitzen du Ramatulayek, jarrerarik duinena horixe dela erabakitzen. Modouren traizioaren ostean, bere samina zein haserre barru-barruan gorde zituen, eta gizarte aurrean jokatutako akasgabea agertu zuen; beste horrenbeste egiten du hura hil ondoren. Hala ere, zenbaitean, bere esparrua babestu beste erremedioerik ez du, eta, orduan bai, eztanda egiten du.

Derrigorrezko berrogei dola egunen ondoren, ezkontza proposamenak bata bestearen atzetik heltzen zaizkio. Zerrendan lehena Modouren anaia Tamsir da, hiru aldiz ezkontutakoa. Burlaz hartzen du Ramatulayek haren proposamena, baietz esane gero Tamsirren laugarren emazte bihurtuko litzatekeelako eta bere ondasun guztiak haren esku geratuko litzatekeelako.

Koinatuari gogorarazten dio jadanik dituen emazteak diruz laguntzeko gai ez dela, lege islamiarren arabera ezinbesteko baldintza dena emazte bat baino gehiago izateko. «Ez naiz esku batetik bestera pasa daitekeen objektua... Ez naiz sekula zure bilduma osatuko duen hori izango». Hitz horiekin bukatutzat ematen du kontua, eta irakurleak halako bozkarioa sentitzen du Ramatulayek lehen aldiz gizon baten aurrean erakutsitako irmotasunagatik.

Hain gutun luzea-k agerian uzten du poligamia ez dela emakumeentzako harreman eredu egokia, gizonen boterea legeztatzea eta legezkotzat jotzeko mekanismoa baita. Emakumeen askapenari begira, heziketa oro har eta liburua zahazki gako direla erakusten du. Hain zuzen, tradizioari bizkarra emateko nahikoa indar ez badu ere, liburuetan eta idazketan ihesbide bat aurkitzen du Ramatulayek. Esan ez dituz esango, baina pentsatu eta idatzi egiten ditu bere kezkek. Horra bere iraultza.

Sol III-tik

Peru Iparragirre

Bere heriotzaren notiziaren harira, 2016ko udazkenaren bueltan izan nuen Mayi Peloten berri. Azken urteotan, zientzia-fikzio feministaren inguruan antolatutako ekimenen bidetik zabaldu da Peloten lana. Ansiblefest zientzia-fikzio feministaren jaialdiaren lehen edizioan izan zuten aipagai *Euskal emakume idazleak zientzia-fikzioan* izenburupean Itxaro Borda, Arrate Hidalgo, Ana Morales eta Josune Muñoz elkartu zituen mahai inguruan, eta, berriki, Sareinak taldeak bere jardunaren hamabigarren urteurrena probestu zuen Mayi Pelot omentzeko. Omenaldi horren harira argitaratu du Maiatz argitaletxeak *Olerki, ipuin eta eleberriak* antologia, hain zuzen ere, Peloten olerki, ipuin eta eleberri argitaratuak biltzen dituena. Tronpatu ezean idazlearen lan argitaratu bakarra geratu da liburutik kanpo, *Hinduismoa, monoteismoa*

mila aurpegiduna (Maiatz, 1992) saiakera.

Bilduma hiru balio handiko altxorra da. zalantzarik gabe, euskaraz ekoizitako zientzia-fikzioa interesa dakioken orotzentzat edo Mayi Peloten lana aztertu nahi lukeenarentzat, bereziki, baina, oro har, baita gure literaturaren kanonaren ertzetara pasatu diren idazleak ere kontuan har nahi dituen literaturazalearentzat. Idazleak



'Olerki, ipuin eta eleberriak'

Idazlea: Mayi Pelot.
Argitaletxea: Maiatz.

Bakarty James maite genueneko

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Mundua hankaz gora ez balego, buruz jakingo zenituzke liburu honetako ipuinak.

Baina demagun mundua hankaz gora dagoela, eta ez duzula hauen berririk.

Jakizu, bada, bilduma berrargitaratua dela lau ipuin hauekin: *Antonino Apreta*, *Txiten istorioa*, *Asto bat hipodromoa*, eta *Jimmy Potxolo*. Lehen eta hirugarren ipuinak Jon Zabaletaren ilustrazioekin jantzita daude; bigarrenaren Asun Balzolarenekin; eta laugarrenaren Antton Olariagarenekin. Ez dugu ilustratzaileen ekarpenaz zabalago aritzeko tarterik,

baina gogoan har Balzolak Bratislavako sari ospetsua jaso zuela lan honetatik, eta Olariaga zein Zabaleta euren sorkuntza maila gorenean ari zirela...

Egin dezagun memoria pixka bat gehiago.

Hasieran, Ereinek ale soltetan argitaratu zituen, 1982. eta 1984. urteen artean, *Siberia treneko ipuin eta kantak* deitzen zen bil-



'Siberia treneko ipuinak'

Idazlea: Bernardo Atxaga.
Ilustratzailea: Hainbat.
Argitaletxea: Erein.

argitaratutako lan ia guztiak emateaz gainera, bere bizitza eta obra gainbegiratzaren dituen hitzaurrea dakar liburua, Amaia Alvarez-Uriaren eskutik, eta hor jasotzen dira, besteak beste, Pelot ezagutu zuen Itxaro Borda, Luzien Etzezaharreta eta Joseba Sarrionandiaren hitz batzuk. Sarrionandiaren ilustrazio batek, eta Marie-Therese Peillenen eta Irene Bordaren hainbat ilustrazioekin jantzen dute liburua.

Maiatz aldizkarian argitaratutako olerkiek ematen diote hasiera bildumari, eta testu dataturik zaharrena 1974koa da, nahiz eta 1982. eta 1989. urteen artean argitaratu zuen ia guztia, 1992ko saiakera salbu. *Maiatz*-en bueltan garatu zuen bere ibilbidea Pelotek, aldizkariaren sorreratik hartu zuelarik parte bertan.

Testuei dagokienez, aipagarria da poema, ipuin eta eleberrietan Pelotek hitzekin jolasteko erakutsitako abilezia. Poemetan aliterazioa eta errima dira nagusi, irakurketari kadentzia bat ezartzen diotenak; horren adibide aproposak dira *Begi gorria* olerkia eta *Helikoki* poema-irudia. Ipuinetan, iruzkin literario gisako *Gutuna Josebari* eta

Amaraua 2 eta 3 aipatu nahi nituzke, gainerako narrazioetan lantzen duen zientzia-fikzioaren inguruko gogoeta gisa har daitezkeenak, Peloten erudizioaren erakusgarri direnak, eta, era berean, bere obran zehar landutako gaiak edo irudiak plazaratzen dituztenak.

Gainerako ipuin eta eleberrietan ere agerikoak dira Peloten umorea eta abilezia. Umorea, ozen barre egiteko moduko ateraldiak baitituzte testuetako askok, kontakizunetako tentsioak orekatzeko balio dutenak. Abilezia, istorioetako harien amarauna armaia trebe baten gisan iruteari dagokionean, freskotasan agerikoak, literatura egiteko asmo garbiaz gauzatua. Halaber, mitologia eta mundu sinboliko propioak sortzeko gaitasunak aberasten ditu testuok, unibertso literario propio baten erakusgarri.

Sol III-tik idazten zuen Pelotek, testuetako batzuen amaieran jarri zuen bezala, Lurretik, eta agerikoa da hori bere lanetan. Mundua ikusteko eta auzitan jartzeko modu asko kabitzen da munduan, eta horietan barneratzeko gida aparta da Pelot.

duma osatuz. Izenburuaren bigarren parteari kasu eginda, 1986an jarraipen musikatua izan zuten, *Flanery eta bere astakiloak* (Elkar) LP/CDan. Lau ipuin horien gain, beste sei kanta ditu diskoak, hitz guztiak (katxondeo hutsa) Atxagarenak dira, JC Perezek musikatu zuen (erritmo dantzagarri-jostalarietara), eta Itoizeko hainbat jotzaileekin grabatua izan zen –gure etxean BERRIA egunkariak berrargitaratutako edizioa erabiltzen dugu, plazer handiz-. Azken bitxikeria: ipuin bakoitzak bere abestiaren hitzak eskaintzen ditu, amaieran.

Siberia treneko ipuinak ez dira lau ipuin solte. Liburuaren sarrean tren batean doazen lau pertsonaia aurkezten zaizkigu, Moskutik Siberiarako bidean, Atxagini, McAtxagen, Atxagof eta Atxaga deritzenak, treneko egun luzeetako ordu are luzeagoak entretentzeko, ipuin kontari. Hurrenkeran, ipuin bakoitzaren aitzin solas gisara agertzen dira lau bidaiariren pasarteak –honen falta sumatzen dut: pertsonaia horiekin osatzea amaiera, lana birbiltzeko-.

Berrargitalpenak ez ditu ipuinak aldatu. Erkatu ditudan biak (Jimmy eta Txitoena) bere horre-

tan mantendu dira. (orto)grafia berregokitze txiki batzuk salbu, orriz orri, fotokopiak balira bezala.

Ipuinok tradiziozkoen ezaugarriak dituzte, baina idatzizko sorkuntza izanik, idazlearen asmoetara moldatuta agertzen dira ezaugarriok. Itxura *traditionale*-na Antoninoren ipuinak dauka, Axut saileko *Martixio asmatzaila*, edota *Lau anaiak* bezalakoekin erraz batzeko moduan. Txitoena, txikienekin ibiltzen dituzten animalia ipuinen artean saikla daiteke, erresoluziorako erabiltzen duen pasarte irudimentsu eta aski interesgarria barne. Hipodromoko astoarena da lauetan irakaspena gehien lantzen duen ipuina, egitura eta kontamolde aldetik Bremengo musikariren ipuinarekin aski ongi ezkon litekeena, bestalde. Azkenik, Jimmy Potxolorena da, nire ustez, sorkuntza *moderno*an, besteak beste pertsonaia traxera psikologiko nabartuena erakusten duelako, eta gure egungo ajeen isplutzat har litekeelako, bere neurrian bada ere.

Guztietan literatur eta hizkuntz estetika nahia gailentzen da, irakaspen asmo bakanen gainetik.